

2006KO EGINTZEN
MEMORIA.



LEHIAREN DEFENTSARAKO
EUSKAL AUZITEGIA



LEHIAREN
DEFENTSARAKO
EUSKAL AUZITEGIA

TRIBUNAL VASCO
DE DEFENSA
DE LA COMPETENCIA

100 AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 01 AGUR INSTITUZIONALA | 4 |
| 02 MEMORIAREN AURKEZPENA | 8 |
| 03 LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIA | 10 |
| Auzitegiaren Sorrera | |
| Auzitegiko Kideak | |
| Auzitegiaren Funtzioak | |
| 04 LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIAREN PLANTEAMENTSU ESTRATEGIKO, IKUSTAPEN ETA BALOREAK | 18 |
| 4.1 Erreferentzia estrategikorako eremua | |
| 4.2 Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren baloreak | |
| 4.3 Helburu estrategikoak | |

| | |
|--|-----------|
| 05 KUDEAKETA HELBURUAK 2006-2007 | 22 |
| 06 2006AN BURUTU EGINTZAK | 24 |
| 6.1 Planteamentu orokorra | |
| 6.2 1 Helburua. Prozeduren eta funtzionamentu moduen preparazioa | |
| 6.3 2 Helburua. Auzitegia arian hasi | |
| 6.4 3 Helburua. Normatiba berria preparatzen esku hartu | |
| 6.4.1 Normatiba estatala | |
| 6.4.2 Normatiba autonomikoa | |
| 6.5 4 Helburua. Erakundeen kontsultei erantzun | |
| 6.6 5 Helburua. Auzitegia Gizarteari ezagutarazi | |
| 6.7 6 Helburua. Lehiaren Defentsarako Foru Internazionaletan esku hartu | |
| 6.8 7 Helburua. Lehiakortasun gaitetan ezagutza sortarazi eta hedatu | |
| 6.9 Lehiaren Defentsarako agintari estatal eta autonomikoekin harremanetan sartu | |
| 07 LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIKO GIZA-TALDEA | 44 |
| 08 XEHETASUN EKONOMIKOAK | 46 |



101

AGUR INSTITUZIONALA

Lehia da merkatuaren ekonomia sozialaren printzipio gidari. Bai teoriak bai bilduriko esperientzia ugari askoak erakusten dute ezen merkatuetan egiaz bada lehia librerik, orduan enpresa eta kontsumitzaileak profitatu egiten direla prezio apalagoez, hautatzeko posibilitate handiagoz eta klientearendako arreta hobez. Horretaz gain, enpresa berriei errazago gertatu ohi zaie lehia librea den merkatuetara sartzea.

Ekonomia bere osoan hartu eta gauzei haren ikuspuntutik so eginez, esan liteke lehiak faboretu egiten duela inflakzioaren jeistea, esportazioen emendatzea, hazkunde ekonomikoa handiagoatzea eta enpleguaren hazte egonkorragoa. Beraz, laburrera ekarririk, benetako lehia izateak ongizatearen eta herrien aberastasuna goratzearen alde egiten du.

Lehiaren defentsaren sorburua aurkitzeko, XIX. mendearen azkenetara jo beharko

genuke. Hain zuzen ere, 1980an promulgatu zen Estatu Batuetan Sherman Act, merkatuen funtzionamentua kontrolatu beharra azaltzen zuen lehen testu legala, botere publikoei eskatzen zitzaielarik mantentzen zitzatela halako baldintzak zeinek, ondorenez, merkatuko indarrei lehia efikazaren garapena permiti diezaieten.

Europar Batasunaren baitan, lehiaren defentsarako politika eratu eta antolatu izan da “giltzarri” gisa barne merkatu bakarreranzko bidean. Tratatu konstitutiboek bere gorputzera dispozizio zenbait ekarri zituzten, guztiek ere xede zuten antitrust konduktak kontrolatu eta eragozteko politika egitea, laguntza publiko estatalen ematea kontrolatu eta mugatzea. Ondoren, 1990.az geroztik, kontrol sistema bat ezarri zen dimentsio komunitarioko kontzentrazio enpresarialerako operazioetan.

2004ko maiatzaren batetik hara, orduantxe zabalitzen baita Batasuna 25 estatu bere barruan hartuz, Europar Batasuneko lehiaren defentsarako politikak erreforma prozesua eta berorren aplikazioan deszentralizazioa izan du. Aplikazioko eredu berriak, bere oinarri juridikoa Kontseiluaren 1/2003 Erreglamentuan duela, enpresei erreponsabilitate handiagoa otorgatzen die beren kondukten ebaluazio orduan eta lehiaren autoritate nazionalak eta jurisdikzio nazionalak jartzen ditu, Europar Batzarrearekin batera, haren aplikazioaren bermatzaile.

Politika honen garrantzia argiro asko ageri da urterik urte handituz doazen xedapenetan; xedapen

aplikazioen ardura duten erakundeek (komunitario eta estatal) hartuetan.

Muga estatalen barruan, lehiaren defentsarako disziplina gazte samarra da baldin eta aintzatan hartzen bada berorren ezarpen praktikoa hasi zela estatu espainiarra Europako Komunitate Ekonomikoan sartu zenean, 1986ko urtarrilaren batean beraz. Merkatu komunera sartzeak galdegiten zuen lehiaren defentsarako sistemaren bat praktikan jarri beharra barne merkatu estatalari zegozkion kondukta enpresarialak kontrolatzeko. Lehiaren Defentsarako 16/1989 Lege uztailaren 17koak permititu egin du lehiaren defentsarako eredu estatal bat garatzea, eredu europarra konplementatzen duena. Egun, arau hau erreforma bete-betean da, horren asmo izanik lehiaren defentsarako sistema estatala egokitzea eredu komunitarioa erreformatu izatetik datozen ondorenetara.

Azken 4 urteotara arte, ordea, sistema espainiarraren ezaugarri izan da zentralistegi izatea eta eragin kortasun txikikoa. Haren esperientzi praktikoa laburra eta haren aplikazioa organismo bakarrean kontzentratu izana dira haren izatearen berri inor gutxi jakitearen kausa. Bestalde, nabaria da lehiaren kulturaren eza, eta horrek badu eraginik gure merkatuetan diharduten agente ekonomiko eta sozialen parte handi batean.

Baina halabeharrez, Auzitegi Konstituzionalaren 1999ko ebazpenak, erresolbatzen zuelarik Eusko Jaurlaritzak eta Catalunya Generalitateak jarritako

inkonstituzionalitate errekurtsu bana, Erkide Autonomei bidea ireki zien hauek izan zezaten zeinek bere lehiaren defentsarako organoa. Lehiaren materialian, Estatuaren eta Erkidego Autonomoen eskumenen koordinaziorako 1/2002 Legea hartu zenaz geroztik, Estatuan lehiaren defentsarako deszentralizazio prozesua abiatu da, eta lehiaren defentsarako autoritate autonomikoak sortu izan dira. Horrek, dudarik gabe, diren gabeziak asetzen eta efikazia handiagoz dotatzen kontribuituko du.

Estatuan abiatutako deszentralizazio prozesuak, egundaino, lehiaren defentsarako autoritateen kreaizoa ekarri du : Catalunya, Galizia, Madrilgo Erkidego Autonomoa, Extremadura, Gaztela eta Leon, Valentzia, Murtzia, Kanariak eta Euskadi.

Lehiaren Defentsarako Euskal Sistema eratu zen 2006ko martxoan egitura organiko dualez, hots, bitariko. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua da espediente zehatzailen ikerkuntza, instrukzio, jarraipen eta artapen egiteko organoa. Bere aldetik denaz, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak ebazpenetarako eskumenak ditu Lege estatalak debekaturiko kondukta kasuetan. Alabaina, funtzionamentuko lehen fasean garrantzia osoa ematen zaio lehiaren defentsaren tutoretza eta sustapen eginkizunei gizaratearen arloetan. Horrez gain, azaldu behar da materia honetan funtzio kontsultiboak ere egiten dituela normatiba horren aplikazioarekin zerikusia duen alderdiren bat edo beste jakin nahi duen Euskadiko erakunde publiko eta pribatuentzat.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak bere lehen memoria honetan aurkezten du Euskadin lehiaren defentsarako autoritatearen funtzionamentutan jar-tzea eta 2006ko urtean buruturiko egintzak, mar-txoaren lehenaz geroztikoak, orduantxe hasi baitzen bere ekina.

Lehen hamar hilabeteotan izan ditugu, batetik, organismoaren aurkezpen, preparazio eta fun-tzionamendutan sartzeko eginkizunak, eta, bes-tetik, erakunde honi bere izatez dagozkion egin-kizunak, hots, errepresentazio, funtzionamendu eginkizunak, nola eta ezarrita baitatoz Lehiaren De-fentsarako Euskal Auzitegia sortzeko eta Euskadiko Erkidego Autonomoan Lehiaren Defentsarako Zerbi-tzuaren funtzioen izendapenerako 81/2005 Dekretu apirilaren 12an.

Bere gorputzera erakunde berri hau sartu duelarik, Euskal Administrazioa dotatu da Lehiaren Defentsarako bere sistemaz. Berorren bidez merkatuetan esku har dezake lehiaren kontrako praktikak prebenitzeko. Sistema honek lan kontsultibo, formatibo eta sustapenezkoak ere egingo ditu, lehiaren kultura jakinarazteko sektore publikoan zein pribatuan; funtsean, gure sistema ekonomikoa hobeki ezagutzen laguntzeko.



102

MEMORIAREN AURKEZPENA

Apirilaren 12koa delarik, 81/2005 Dekretuaren 6,i) artikulua Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (LDEA) sortzeari eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEZ) funtzioen izendapenari dagokio, eta seinalatzen du bere Osoko Biltzarraren funtzioetako bat dela urtero memoria bat apailatu beharra.

Agindu hori bete beharrez, LDEA-ren Osoko Biltzarrak, 2006ko abenduaren 14an egunez egin batzarrean, onartu du presenteko memoria hau, beren egintzen lehen urteari dagokiona.

Eginkizunetan abiatu, 2006ko martxoan egin zen Auzitegiko hiru kideak izendatzearekin eta Euskadiko Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren funtzioen izendapenarekin. Horretarako proposamena Ogasun Saileko eta Administrazio Publiko, Industria, Komertzio eta Turismoko Kontseilaritzetatik dator, aurretiaz Gobernu Kontseiluak deliberatu eta onartua izan delarik 2006ko otsailaren 21ko bileran (29/2006 Dekretu otsailaren 21ekoa, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren kideen izendapenaz).

Behin izendatuta, Auzitegia bere eginkizunari lotu zaio, lehiaren defentsaren arloan. Lehen exerzizioan burutu dituen zereginen artean, lehenetakoa eta nabarmenetakoa izan da bere Plan Estrategikoa eta kudeaketarako apailatzea. Dokumentu hori Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzarrak aurkeztu eta aldeztu zuen 2006ko Maiatzaren 25eko ekitaldian, aldi berean Grupo Parlamentario Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak Legebiltzar Taldeak eta Auzitegiak berak eskaturiko agerpenean. Batzarre hartan, parlamentarioek instatu eta bermatu egin zuten Auzitegia, honek beregana zitzaizen behar zituen baliabide guztiak eta konpli zitzaizen ezarritako helburuak.

Auzitegiari berariaz dagozkion eginkizunetaz den bezainbatean, nabarmendu behar da sortu zenaz gozotiko lehen bederatzi hilabeteko eginkizunetan 27 txosten burutu dituela, besteak beste, merkataritza establezimendu handien gainekoa, eta, horrez gain, lan sendoa egin izan du Euskadin lehia librea sustatzen eta

hauspotzen, hori guztia elkarlanean arituz Lehiaren Defentsaren Euskal Zerbitzuarekin, zein atxikia baitzaio Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publikoaren Saileko Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzari.

LDEA-ren lehenengo memoria honek bere bigarren kapituluaren sartua dauka esan berri dugun hortaz azalpen labur bat, hots, noiz sortu, zer kide eta izendaturiko zer funtzio daukan.

Hirugarren kapituluak jaso dakar modu sintetikoan Auzitegiak apailatu duen Plan Estrategikoa; berorren arabera burutuko dira datozen urteetako eginkizunak; berorrek ezarriko ditu irizpideak. Laugarren kapituluak aurreko guztia osatu egiten du azalduaz 2006 eta 2007an egin gogo diren helburuetarako zernolako izango den modua eta kudeaketa.

Memoriaren gorputz nagusia bosgarren kapituluaren dago. Horretan xeheki jasoak dira Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2006an burutu dituen egintzak, guztiak ere 81/2005 Dekretu apirilaren 12koak eta Plan Estrategikoa eta Kudeaketakoak izendatu dizkion funtzioen kunplimentutan.

Azkenik, memoriak aurkezten du Auzitegiak urte osoan izan duen lan-taldea (seigarren kapituluaren) eta aurrekontua (zazpigarren kapituluaren).




03

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIA

AUZITEGIAREN SORRERA | 81/2005 Dekretu apirilaren 12koak ezarri zituen Lehiaren Defentsarako Euskal Sistemaren oinarriak. Euskal Sistemak bere eginik ditu zenbait aspektu edo alderdi lehiaren defentsarako eredu estatalarenak, zein ezarri baitzuen Lehiaren Defentsarako 16/1989 Lege (LDL) uztailaren 17koak. Lege horretan jasorik datoz kondukta debekatuak, prozedimentuak, lehiaren defentsarako organoen konposizioa eta hauen funtzioak.

81/2005 Dekretuak Euskadin bi organismoren gain jartzen du lehiaren defentsa: Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua (LDEZ), bere ardura izanez ikerkuntza funtzioa, instrukzio funtzioa eta espedienteen begiraletza; eta Lehiaren Defentsarako



Euskal Auzitegia (LDEA), kondukta debekatueta ebazpen funtzioa duena, baina badu halaber funtzio kontsultatiboa, tutelakoa eta lehiaren defentsaren politikaren sustapeneko. LDEZ da sistemaren motor eta bihotz. Berori eta LDEA ezinbesteko piezak dira sistemaren funtzionamendurako.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia autonomia hierarkiko eta funtzional osoz aritzen da, eta bere funtzioetan erabateko independentziaz jarduten du, beti ere ordenamendu juridikora sumetitia.

Euskadin Lehiaren Defentsarako Auzitegia eta Zerbitzua organo autonomo gisara sortu izanak helburutzat dauka materia horretako eskumenen banatze auziari erantzun egokia ematea. Hori guztia segitzen zaio 1999ko Azaroaren 11n Auzitegi Konstituzionalak agertu ebazpenari.

Delako ebazpena diktatu zen Eusko Jaurlaritzak eta Catalunyako Generalitateko Kontseilu Exekutiboak aurkezturiko inkonstituzionalitate errekurtsu banaren ondorenez. Ebazpenean agertzen da “lurralde nazional osoan edo parte batean” klausularen inkonstituzionalitatea; klausula hori berariaz edo erremisioz dator Lehiaren Defentsarako 16/1989 Legearen –Uztailaren 17koa- 4, 7, 10, 11 eta 25a) artikuluetan.

Ebazpen horretan oinarriturik, barne merkataritzako materialen eskumen duten Erkidego Autonomoei berei dagokie esku hartze, baimentze edo zehatzea lehia libreari zaizkion auzietan, eta berori eremu intrakomunitarioan edo eremu autonomora mugaturiko praktikak direnean.

| | L.D.A. Estatua | L.D.E.A. Euskal Erkidegoa | L.D.A.K Catalunya | L.D.A.G Galicia | L.D.A.M Madrid |
|-----------------------|--|--|---|--|--|
| NORMA SORTZAILEA | 16/1989-ko Lege uztail 17koa, alderazia 7/1996 Erret Dekretu Lege ekainaren 7koa | 81/2005 Dekretua apiril 12koa, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortzeari eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari funtzioak izendatzeari dagokiona. (BOPV 84, 2005/5/6). | 222/2002 Dekretu abuztu 27koa, zeinen bidez kratezen baitira Catalunya Generalitatea-ren lehiaren defentsarako organoak. (DOGC 3711, 2002/9/2koa). | 6/2004 Lege uztail 12koa, Erregulatzeko dituena Galiziako Erkidego Autonomoko Lehiaren Defentsarako Organoak. (DOG 141, 2004/7/22koa). | 6/2004 Legea abendu 28koa, Madrileko Erkide Autonomoko Lehiaren Defentsarako Auzitegia sortzen duena. (BOCM 310, abenduaren 30koa). |
| ESTATUTU JURIDIKOA | Organismo autonomoa adskribatua Ekonomia eta Ogasun Ministerioari | Organo adskribatua Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikokoaren Kontseileria-ondokoari | Organismo autonomoa adskribatua Ekonomia eta Finantza Sailari, pertsonalitate juridiko propioz, kudeaketa autonomiaz eta independentzia osoz | Organismo autónomo izaera administratibo- koa | Organismo autonomo izaera administrati- bokoa, adskri- batua Ekonomia eta Berrikuntza Teknologikoko Kontseilaritzari |
| AURREKON- TUA | Aurrekontu aurreproiektua 2007: 5.883.000 € | 2006an exekutatuak:: 228.585,99 € | 2006ko Urtea 1.365.569 € | 2006ko Urtea 893.077 € | 2007ko Urtea 3.231.201 € |
| ZENBAT KIDE | 9 | 3 | 5 | 3 | 5 |
| MAILA PRESIDENTEA | Estatu Idazkaria | Zuzendaria | Zuzendari Orokorra (Kontseilari ondokoa) | Goi kargua | Goi kargua |
| MAILA BOKALAK | Zuzendari Orokorra | Zuzendaria | Zuzendari Orokorra | Goi karguak | Goi karguak |

Auzitegi Konstituzionalaren ebazpenari jarraiki, 1/2002 Lege otsailaren 21ekoa diktatu zen, Lehiaren Defentsa materian Estatuaren eta Erkidego Autonomoen Eskumen Koordinazioaz. Berorrek aurrekusten du materia horretan eskumen duten Erkidego Autonomoetan lehiaren defentsarako organoak eratuko direla

Beste organo autonomiko batzuk

Beste Erkidego Autonomo batzuetan, zeinek bere lehiaren defentsarako organoak eratu ditu:

- *ARAGOI: 29/2006 Dekretua, urtarrilaren 24koa, horrek eratzen eta arautzen ditu Aragoiko Lehiaren Defentsarako organoak. (BOA 17., 2006/2/10koa)*

- *GAZTELA ETA LEOI: 36/2006 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, berorren bidez bere egiten du lehiaren defentsarako materiako eskumena, eta horrela eratu zen Gaztela eta Leoiko Lehiaren Defentsarako Auzitegia. (BOCetaL 104., 2006/5/31koa).*

- *EXTREMADURA: 2/2005 Legea, ekainaren 24koa, sortzen duena extremadurako Lehiaren Defentsarako Epaitegia. (DOE 2005/7/7koa).*

- *MURTZIA: 13/2004 Dekretua, otsailaren 13koa, zeinaren bidez bere egiten dituen zenbait funtzio lehiaren defentsarako materian, eta horrela eratu zen Lehiaren Defentsarako Eskualde Zerbitzua (BORM 43., 2004/02/21koa)*

- *KOMUNITATE VALENTZIAKO: 278/2004 Dekretua, abenduaren 17koa, Generalitatearen Consellerena; horrek aldarazi egiten du 112/2003 Dekretua, ekainaren 11koa, Generalitatearen Consellerena, zeinaren bidez Ekonomia, Ogasun eta Enpleguaren Kontseileria-aren Araudi Organiko eta Funtzionala onartu baitzen (DOGV, 4.908., 2004/12/22koa).*



AUZITEGIKO KIDEAK |

LDEA hiru kidek osatua da, haietako bakar batek errotatiboki, bi urterik behin, Buru edo Presidente kargua bere gain izanik. Ez duenagatik ere Euskadiko Erkidego Autonomoko Administrazioaren egitura hierarkikoan parterik, bere esku ditu ordea Ogasun eta Herri Administrazio Sailak ornitzen dizkion baliapide ekonomiko, tekniko eta humanoak. Auzitegia sendotu dadin Euskadiko lehiaren defentsarako autoritate gisa eta bere sorrera Dekretuan izendatu zaizkion eskumenak balia ditzan, ezinbestean bere barruan eta berehalara hartu beharko du pertsonal tekniko eta administratiboa.

2006ko martxotik eta abendura bitartean, Auzitegia osatua izan da ondoko hauekin :

- | **Presidente:** Jaun Juan Luis Crucelegui Gárate.
- | **Presidente ondoko:** Jaun Javier Berasategi Torices.
- | **Bokal eta bakantziagatiko Idazkari:** Jaun Joseba Andoni Bikandi Arana.

Bestalde, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren funtzioak unitate espezifiko batek betetzen ditu, sortua berori Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzaren baitan. Unitate hau, LDEA-ren jarduna buruzagitzen duten independentzia, integritate eta konfidentzialitate arau beren pean dago.

Bere ikerkeak azken bururaino eramateko, LDEA-k enpresak behartu egin ditzake eskura jar diezaiten behar den informazio guztia eta aurrez jakinarazi gabeko ikustapenak egin ditzake enpresen egoitza eta aretoetan.

**AUZITEGIAREN FUNTZIOAK |**

Merkatuen arteko lehiatik gizarteari bere osoan hel dakizkiokeen onurak gora-behera, inoiz halako eta halako kasuetan agente ekonomiko batzuen (publiko zein pribatu) interes partikularrek lehiari kontra doazkion praktika hertsigarriak sor ditzakete, interes orokorrari kaltekor zaizkionak. Beraz, horrelakoetan lehiaren defentsaren aldeko agintarien esku hartzea premiazkoa da merkatuen funtzionamentu kompetitiboa bermatzeko eta horretatik onurak gizarte osora heltzeko. Esku hartze hau LDEA-ri izendaturiko zenbait funtzioaren bidez egiten da:

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Funtzioak

- | Funtzio ebazlea
- | Funtzio kontsultiboa
- | Funtzio tutelarra
- | Funtzio sustapenezko, dibulгатibo eta hedatzekoa

1.na. Funtzio ebazlea

Auzitegiak esku har dezake isun zehatzaile eta koertzitiboak ezarriz, intimidazioaren bitartez eta kalte-damuen ordaintzeko prozedimentuen asignazioz. Horren guztiaren helburua da:

| Lehenik, debekatzea eta deuseztatzea akordio, erabaki, gomendio kolektibo edo konszienteki eta elkar-harturiko praktika paralelo oro, zeinek asmozat baitu, eragiten baitu edo eragin baiezake lehiakortasunaren eragozte, murrizte edo faltsutzea.

| Bigarrenik, debekatzea: batetik, enpresen dominiozko situazio posibleen gehiegizko esplotazioa; eta bestetik, dominazio horren azpian egon daitezkeen enpresa, kliente eta hornitzaileen dependentzia ekonomikozko egoera, beren aktibitatea egiteko beste alternatibarik ez dutelarik.

| Azkenik, Auzitegiak ardura izango du egintza desleialen bitartezko lehia librearen faltseamentua eragozteko.

Bere funtzio ebazleari zaionaz, esan behar da ezen zehapen-espeditentek bere barruan hartzen dituztela Lehiaren Defentsaren Legearen 1 artikulua urratzen duten kondukta kolusorioak, 6 artikulua bortxatzen duten dominaziozko posiziotiko konduktak eta lege bereko 7 artikulua baturik dituen konportamentu desleialak. Kondukta kolusorioen barruan dira izaera horizontaleko eta bertikaleko akordioak.

¹ 29/2006 Dekretu otsailaren 1ekoak gidatu izendapena. Berori da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren kideen izendapenari buruzkoa, 81/2005 Dekretuko 2 apartatuan (apirilaren 12koa) dispostuarekin konformitatean dago, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortzeari buruzko eta Euskadin Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari funtzioak izendatzeari buruzkoa, Ogasuneko eta Administrazio Publiko eta Industriako Kontseilarien proposamenez, lehenago deliberratu eta onarturik Jaurlaritzako kontseiluak 2006ko otsailaren 21ean.

² LDEZ-ren gaineko informazio gehiago ondokoan: http://www.ogasan.ejgv.euskadi.net/r51-18959/es/contenidos/informacion/portada_svd/es_psvdc/portada_svd.html



2.na. Funtzio Kontsultiboa

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak lehiaren defentsarekin zerikusia duten txostenak apailatzen ditu, bai bere baitarik abiatuz bai hala egiteko eskatu diotelako Eusko Legebiltzar, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, Euskal Erkidego Autonomoko korporazio lokal, beste administrazio publiko, merkataritza ganbara eta erakunde enpresarial, sindikal edo kontsumitzaileen edo usuarioenek.

LDEA-k igor ditzake ondoko txosten motak:

| Merkataritza establezimenduen kokapen, zabalkunde eta modifikaziorako lizentzien gaineko txostenak; txostenok prezeptibo dira, baina ez lotesgarri, 244/2006 Dekretu azaroaren 28koan (7,3na artikulua) jaso denez, zein baita 58/2001 Dekretu urtarrilaren 28koaren modifikapen, merkataritza establezimendu handien kokapen, modifikazio eta zabaldundeari buruzkoa.

| Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren beraren eginkizunen gaineko txostenak, direla ofiziozko direla Eusko Jaurlaritzak eraginik, bai eta sektore ekonomikoen eta merkatuen ikerkuntza eta analisiak, 81/2005 Dekretu apirilaren 12koaren 6,c) artikulua dioenez; dekretu hori da Lehiaren Defentsaren Euskal Auzitegiaren sorkuntza dakarrena eta Euskadiko Erkidego Autonomoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren funtzioak izendatzen dituen.

| Eusko Legebiltzar, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, Euskal Erkidego Autonomoko korporazio lokal, beste administrazio publiko, merkataritza ganbara eta erakunde enpresarial, sindikal edo kontsumitzaileen edo usuarioenek galdaturiko txostenak, hala nola azaltzen baita 81/2005 Dekretu apirilaren 12koaren 6,h) artikuluan:

- | Izaera arautzaileko txostenak.
- | Merkatuen gaineko txostenak.

| Txosten prezeptibo lotesgarri ez direnak, LDZ-ren eta Estatuaren LDA-ren eskariz; txostenok dira, eremu supra-autonomoan edo Estatu osoko merkatuari eraginik, Euskadiko Erkidego Autonomoa berariaz ukitzen duten kondukten gainekoak; hala dator jaso 1/2002 Lege otsailaren 21koan, koordinazio mekanismoen 5,4. artikuluan; lege horrek, Lehiaren Defentsaren material, Estatuaren Eskumene eta Erkidego Autonomoen arteko Koordinazioa arautzen du.

3.na. Tutoretza Funtzioa

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak badu bere gain tutoretza funtzioa merkatuen funtzionamenduari buruz; zeregin hori Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren bidez egin ohi du. Hark hau insta dezake ikerkuntzetan has dadin. Horrez gain, proposamen motibatuak

eraman diezaizkieke Eusko Jaurlaritzari edota Foru Aldundiei, hauek lehia murriztu deneko kasu konkretu batzuetan esku har eta lehia osoa berriro ezar dezaten; murrizte hori izan liteke arau legalen bidez edo laguntza publikoen bidez etorria izana.

4.na. Lehiaren politikaren sustapen, dibulgazio eta hedapenerako funtzioa.

Auzitegiaren egitekoetako bat da lehiaren kultura hedatzea, eta horrekin batera, euskal gizartean, materia horri buruzko ezagutza eta gaitasuna garatzea. Hori guztia merkatuen funtzionamentu eraginkorrean bultzatzeko. Horretara Euskadiko ekonomiaren eta garapen ekonomikoaren produktibitatea hobetzen lagunduko da.



04

LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIAREN PLANTEAMENTU ESTRATEGIKO, IKUSTAPEN ETA BALOREAK

4.1 ERREFERENTZIARAKO EREMU ESTRATEGIKOA


Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, berari izendaturiko funtzio eta eskumenen eremu barruan, badu, epe ertain eta epe luzera, honetarako asmoa:

| Kontsumitzaile, enpresa eta gizartearentzat kalitate zerbitzu bilakatzeko; begiratu eta jagongo du merkatuaren funtzionamendu hobea eta eraginkorragoa, orobat sistema ekonomikoa dinamizatzen duen lehia librea, guztia ere hirritaren hobea beharrez.

| Lehia indartzeko ahaleginean, erreferente izateko. Horretan, Euskal Gizartearen lagungarri izango da, eta lehiaren defentsan parte hartuko du Estatuan eta Europar Batasunean zeregin bertsua duten organismoekin.

| Profesionalitate eta independentziaren eredu izateko. Kasuak zorrotasun handinez tramitatuko ditu, izendatu zaizkion baliapideak alaitz hobekienik profitatuko ditu, legeriaren xedeak betetzen zehatza izango da.

Hiru printzipio hauek gidatzen dute Auzitegiaren ekina. Hiru ardatz horien gainean arituko da, urteko kudeaketak eta monitorizazio global eta sistematikoa horren gainean bermatuko ditu.



4.2 LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAREN BALOREAK

Auzitegiak erreferentzetat 5 balore hartu ditu. Horien arabera nahi luke bere egintzak eta kudeaketa eredia ezagutua izan daitezen; ezagutua eta aintzatan hartua, bai bere barruan bai kanpoan.

Gardentasuna.

Horretarako, sistematikoki jakinaraziko dizkio gizar-teari bere xede, irizpide eta egintzak. Horrez gain, gardentasuna gizar-tearekiko ez ezik, Erakundeko langile, kliente, hornitzaile eta Auzitegiarekin nolabaiteko harremana duen ororekiko konpromisoa da.

Profesionaltasuna.

LDEA-ren identitatea sortu behar dugu, sortu ere lan ongi eginaren bitartez, lan zuhurra eta oinarri sendoen gainean eginga. LDEZ-a lagun duelarik, Auzitegiak ekingo dio barruko pertsonak motibatzen, hauen talentua zerbitzuzko kalitate bilaka dadin; horien formakuntza tekniko etengabea hauspotu eta kitzikatuko du.

Independentzia.

Auzitegia ez da Euskadiko Erkide Autonomoko egitura hierarkikoaren parte; bere egintzetan eta eskumenen erabilpenean Administrazio Autonomotik guztiz independente da; legeriak lehiaren material dioena gidatzen harturik baino ez du jardungo.

Eraginkorra.

Hori erdietsiko da, legeak izendaturiko xedeak lortu eta lehia librearen hobekuntza benetako eta eraginkorrean aurrera egin eta kasu nabarmenei irtenbidea emanez; horra zer dugun eraginkortasunaz ulertzen.

Konfiantza.

Auzitegiaren egintzetan nahitaezko balorea konfiantza transmititzea da. Horrek erraztu egingo ditu lehiaren sisteman parte hartzen duten agentekin akordio eta harremanak, esan nahi baita, Administrazio Publiko, elkarte enpresarial eta profesional, kontsumitzaile eta usuarioen elkarte eta pertsonekin izan ditzakeen akordioak.

4.3 HELBURU ESTRATEGIKOAK

Luzera, helburu estrategikoak oinarritzko erreferentzia dira Auzitegiaren kudeaketa barruan. Helburuak denboran aurrera egin ahala beteaz joango dira, baina, duten sendotasunagatik, luzerako dira eta erakunde honen egintzetan nagusi izango dira.

Hona hautaturiko helburu estrategikoak:

| Lehia librearen funtzionamendua eta merkatua modu eraginkorrean hobetzea euskal gizartean, berori bultzagarri izan dakion produktibitate globalari eta garapen ekonomikoari.

| Euskal Gizartean hedatzea lehiaren kultura, agente guztiek har dezaten funtsean gizarte osoaren onerako izango den faktoretzat.

| Lehiaren material ezagutza eta gaitasuna garatzea euskal agente sozialen, ekonomikoen eta instituzionalen artean.



105

KUDEAKETA
HELBURUAK
2006-2007

Hona zeintzu diren Auzitegiak onartu eta egundaino erreferentziatzat erabili izan dituen 2006-2007ko kudeaketa helburuak:

1 Helburua.

Auzitegiaren prozedimentu eta funtzionamentu moduak eratu. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren funtzionamentu egoki eta hobenerako oinarri izan diatekeena eratzea da helburu hau.

2 Helburua.

Auzitegia eginetan abiarazi. Esan nahi baita, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuarekin batera, ibilian jarri behar da legearen aplikazioa eta berorren funtzio zehatzaile, ebazle, informatibo eta sustatzaile, kontsultibo eta errekurtsuen erabakitzzailea. Berariaz, diseinatu, elaboretatu eta lan egingo da -lehiaren defentsako lehenengo kasuetan- funtzio ebazlearen oinarriak martxan jartzeko.

3 Helburua.

Lehiaren defentsarako lege berriaren prestakuntzetan parte hartu. Auzitegiko kideek parte hartuko dute, ekarpen tekniko, lege berriaren debatean, zein, usteko denez, 2007an onartuko baita.

4 Helburua.

Erakundearen kontsultei erantzun. Eusko Legebiltzarra, Erakunde Publikoek eta agente sozialek lehiaren defentsari buruz egin ditzaketan galderei erantzuteko prozedimentuak prestatu eta artikulatu.

5 Helburua.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren berri eman gizarteari. LDEA-a organismo berria da Erkidego Autonomoan eta, hortaz, oso guti ezagun. Aldi honetan eginkizun gorenetakoa izango da Erakundearen gaineko informazioa zabaltzea: berorren jatorri, helburu eta

funtzioa zer den er den ohartarazi; gizarteari jakinarazi erakunde horren funtzionamentu egokiaren garrantzia agente guztien interes indibidual eta kolektiboak defendatzeko orduan; bai eta ikustarazi sistema ekonomikoaren funtzionamentu zuzenean duen garrantzia.

6 Helburua.

Lehenengo harreman europear eta internazionalak ezarri, balio dezaten bide gisa Lehiaren Defentsan ari diren nazioarteko erakundeekin esperientziak trukatzeko.

7 Helburua.

Ezagutza sortu eta hedatu lehiaren defentsaren politika arloetan eta lehiaren Ekonomiaren eta Eskubidearen arloetan. Halaber, Euskal Herriko unibertsitate eta mundu akademiko eta profesionalarekin harremanetan sartu, unibertsitateko gai har dezaten eta susta lehiaren defentsa.



106

2006AN
IZAN
DIREN EGINTZAK

6.1 PLANTEAMENTSU OROKORRA

Lehenengo ekitaldian, Auzitegiak prestaketa kanpaina eder askoa egin izan du egintzetan abiatu ahal izateko. Eginkizun ugari egin izan dira eremu askotan. Horrek balio izan dio erakunde publiko eta pribatuen aurrera azaltzeko, bai eta euskal gizartearen aurrera. Horrela, onduz etorri izan da eginkizun horretarako behar diren giza gaitasunak eta gaitasun teknikoak.

Ondoren eginkizun nagusienak aipatu eta deskribatuko dira, sailkatuak lortu nahi izan den helburuen arabera.

6.2 1go HELBURUA. FUNTZIONAMENTURAKO PROZEDIMENTU ETA MODUEN PREPARAZIOA

Giza baliabideez dotatzea

2006. urtean Auzitegiaren ardura nagusietako bat izan da lan-talde bat eratzea, kualifikazio handienekoa, lehiaren gaineko legeria ezagun duena eta materia horretan esperientzia ongi erakutsia duena.

Horretarako, lanpostuetarako profil egokiak itxuratu dira eta Jaurlaritzako estamentuekin beharrezko harremanak izan, berorrek dota ditzan presupuestoz eta modu administratiboz behar diren lanpostuak.

Lehenengotan aurreikusten zena, hots, lau pertsona hartzea -bi profil tekniko-juridikodun eta beste bi zuzendukoak eginkizun administratibo eta kudeaketara, ezin izan da lortu. Bi pertsona hartu ahal izan ditugu, nahiz badirudien 2007ko bigarren seihilabetean letratu bat izango dugula, ondoko funtzioak izango dituen:

| Letratuak egiteko zenbait izango ditu, guztiz ere Lehiaren Eskubide estatalaren eta komunitarioaren aplikazioari dagozkionak; aplikazioa gure eskualdean. Bereziki ere, txostenak erredaktatu eta ikasketak egin beharko ditu materia honetan eskubideak eta jurisprudentziak duen bilakaeraz, esan nahi baita, kondukta kolusiboez, kontzentrazio kontrolez eta laguntza publikoen kontrolez.

| Orobat, jarraipena edo begirapena beharko du egin Zerbitzutik datozen espedienteen gain, zeini buruz Auzitegiak ebatzi egin beharko baitu. Horrez gain, Auzitegia lagundu egingo du ebazpenak betearazteko orduan.

| Kolaboratu egingo du erakunde, profesional eta enpresariatzat antolatuko diren ikastaro eta konferentzietan.

| Auzitegia bermatuko du honi dagokion funtzio erre-presentatiboetako egintzetan.

Ez dago beraz dudarik Euskal Administrazio Publikoak ahalegin apartako bat egin behar duela lan-talde sendo bat eratzeke. Horrelaxe baino ezin daiteke burutara eramane Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari eska dakiokena.

Auzitegiaren eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzua- ren arteko harremanen eremuaren ezarpena

2006an jarri izan dira Auzitegia eta Zerbitzua elkarrekin ari daitezeneko oinarriak. Izendaturik dira jarraibide nagusiak eta bi organismoen artean zenbatnahi batzarre egin izan dira koordinazioa nolakoa izango den erabakitzeke.

Elkar-hartze eta kolaborazio horretatik heldu dira, esaterako, ikerkuntza eta azterketako lehenengo lanak, bai eta espediente konkretu batzuen apailatzea. Horrelaxe hasi dira lehiaren defentsarako lehen lanak.

Zehazki esateko, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari espediente irekitzea eskatu egin izan zaio honako sektoreetan:

| Garraio sektorea: zenbait hedabidetan agertu zelarik asoziazio profesional batek bere kideei egindako deia beren zerbitzuen prezioa %2,7tik %3ra bitartean igo zezaten. Orobat, prentsa komunikatu bat aztertu izan zen bere kideei gomendatuz garraio tarifan igoera, asoziazioaren web orrian ere jakitera eman zen komunikatua.

| Gidari formakuntzako sektorea: gidatzen ikasteko zenbait zentronen tarifa bertsuak ikusirik, justifikatzen nekez dena operadore ugari ari diren sektorean, kasua Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEZ) esku utzi izan da honek informazio irekitze erretserbatua egin dezan.

| Energia sektorea: energia instalazioetako tekniko profesionalen asoziazio batek salatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Industria, Komertzio eta Turismoko Sailaren Kontsumo Zuzendaritzaren aurrean, energia banatzaile den enpresa handi bat, instalakuntza zerbitzua frankizia bitartez egin izateagatik, beraz modu paraleloan, horretarako baliatzen zelarik bere markaz eta merkaturan duen posiziaz eta publizitate inolaz ere argia ez zenaz. LDEZ-k ez zuen informazio erretserbatuko

diligentziarik abiarazi, zeren espediente hau ezagutzeko eskumena Estatuaren Lehiaren Defentsarako Zerbitzuarena baita.

| Informatika sektorea: osagarri eta produktu informatikoen enpresa txiki batek enpresa multinazional bat (haren ornitzaile) salatu zuen, berorrek estatu espainiarrean duen delegazioaren bitartez, ustezko klausula kontraktual abusiboengatik. LDEZ-k espedientea artxibatu egin zuen, erabaki zuenez gero ez zegoela salaketarako froga nahikorik.

Harremanen eremu honetan, LDEA-k eta LDEZ-k elkarrekin antolatu zuten jardunaldi bat lehiaren ekonomiaz eta eskubideaz 2006ko azaroaren 26an, Ekonomiaz aldizkariaren 61 alearen aurkezpen gisa.

2006-2007ko Plan Estrategikoa eta kudeaketa

2006-2007ko Plan Estrategikoa eta Kudeaketakoa burutu da. Berorren barruan kokatu da eta deskribatu erakundearen geroa, berorretan jarriak datoz helburuak eta baliapide humanu eta teknikoak helburuok burutu daitezzen. Plan hau Eusko Legebiltzarrean aurkeztu izan zen.

Plan honek gidatzen balio izan du azken ekitaldian izandako egintzen kudeaketarako.

Auzitegiaren operazio prozesuen definizioa

2006. urtean zehar barruko antolakundea burutzeko urratsak egin izan dira, bai eta kalitate osoko irizpidee-

tan oinarritu erakundea egin ahal izateko funtsak jarri izan dira.

Horretarako, LDEA-k bere egin du barne eraentzako araudi bat, balioko diona bere egintzen eremutzat, legeak permititzen dizkion auto-organizazio ahalak erabiliz. 2006ko urtean horren edukiak preparamen aritu izan gara. Edukiok funtzionamendura ez ezik organo instruktooretara eta LDEA-rekin harreman izango duten partikularretara ere hedatzen dira.

Bestalde, 2007ko urte erditsuan prozedimentu manuala amaiturik izango da. Horrek biribilduko du, azkenik, LDEA-k izango duen modus operandi edo aritzeko eredua.

6.3 2. HELBURUA. AUZITEGIAREN EKINARI HASIERA EMAN

Kasuen ebazpena

Lehiaren Defentsarako Euskal Sistema bi erakundetan berrantolatuta dago: Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua (LDEZ), funtzioetan duela inbentario, jarraipen eta begirapen egitea izaera bereziko espedienteei, izaera berezia, materiaren konplexitateagatik bai eta Sistema dotatu behar delako Administrazioarekiko independentziaz, horrek ez dakar Zerbitzuaren egintzak kontrol judizialek landa direnik; eta Auzitegia, debekatu kondukten ebazpenetarako eskumenduna, bai eta bere eskuko dira eskumen kontsultiboa eta tutoretzakoa.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzutik (LDEZ) jaso izan du ofizialaren lehenengo espedientea, instruitua 16/1989 Lege uztailaren 17an sartua den kondukta baten gainean, hots, errepidetan gairako garraio sektoreari dagokion kondukta. 2006ko abenduaren azkenetan Auzitegia, arduradun ponentearen bitartez, ebazpena preparamen fase bete-betean zen.

Helburu honi zaionaz bezainbatean, Auzitegiaren funtzio nagusia ez da inoiz izango zehapenak jartzea —nahiz behar denean hala duen egingo— baizik zuzendua dago merkatu librearen funtzionamendua denik eta hobekiena izan dadin; horrek, bere aldetik denaz, kontsumit-



zaile, enpresa eta gizarteari bere onura bihurtuko dio. Hori guztia lehiaren kulturaren hedapen eta dibulgazio politikaren bidez. Horretarako baliatuko dira ikastaro, elkarreratze, foru, kongresu, web orri ofiziala, eta gainerakoak agente sozial eta ekonomikoentzat, unibertsitate eta administrazioentzat.

Txosten zerrenda

2006.ko urtean LDEA-k orotara 27 txosten egin izan zituen. Horietarik: 24 merkataritza superfizien handien kokapen, hedapen edo modifikazioen gainean izan ziren (bat LDA-ak burutua urtarrilean eta txosten igorri gabe bat informazio faltaz, Industria, Komertzio eta Turismo sailak galdatua); merkatuei buruzko txosten bat, Lehiaren Defentsaren Euskal Auzitegiaren kreaziorako 82/2005 Dekretu apirilaren 12koaren 6,h) artikuluan oinarritua; eta bi txosten normatibo.

| Egindako txostenen tipologia | Zenbakiak |
|---|-----------|
| Superfizie handiak (7-3. Art. 58/2001 Dekretu urtarrilaren 27koa) | 24 |
| Merkatuak (6, h Art. 81/2005 Dekretu apirilaren 12koa) | 1 |
| Norbatiboak | 2 |
| OROTARA | 27 |

6.1 Taula LDEA-k. 2006

Superfizie handien gaineko 24 txostenek aipu egiten diote 58/2001 Dekretuaren 7,3 artikuluko martxoaren 27koan -merkataritza superfizien handien kokapen, hedapen edo modifikazioez- ezarriari. Hori Jardun Komertzialaren 7/1994 Legearen modifikaziorako egindako 7/2000 Lege azaroaren 10ekoak garatua du. Eremu normatibo honek Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari izendatzen dio merkataritza superfizien handien kokapen, zabalkunde edo modifikazioei buruzko txosten prezeptibo ez lotesleak igortzeko ardurara, horien inpaktua ebaluatu beharko duelarik lehia librearen ikuspegitik.

Auzitegiak igorritako txosten hauek, baitira Eusko Jaurlaritzako Komertzio Zuzendaritzari materia honetan jardun ahal izateko egindako eskarien gainean (merkataritza superfizien handien kokapen, hedapen edo modifikaziorako lizentzia), proiektuen egokitasuna erakusten dute lehiaren defentsari dagokion aldetik. Horietan lehen, urtarrilekoa, LDA-ak igorri izan zuen, data horretan oraino ere LDEA-a osatu gabe zegoenez gero. Ondoren zerrendatuko dira Auzitegiak igorritako txostenak jardun mota honi dagozkionez.

| Eskalea | LDEA Sartu Data | LDEA Irten Data | |
|-----------------------------|-----------------|-----------------|-------------|
| EROSKI-BASAURI | 19/01/2006 | 16/03/2006 | ALDEKOA |
| SUPER BM-TOLOSA | 02/02/2006 | 24/04/2006 | ALDEKOA |
| VIVEROS ORIA-MENDI DONOSTIA | 02/02/2006 | 26/04/2006 | ALDEKOA |
| EROSKI- S.COOP. - ZARAUTZ | 02/02/2006 | 26/04/2006 | ALDEKOA |
| DIA, S.A.- LLODIO | 20/02/2006 | 25/04/2006 | ALDEKOA |
| DIA- ERMUA | 27/02/2006 | | ICORRI GABE |
| UNIALCO/UVESCO | 03/03/2006 | 13/06/2006 | ALDEKOA |



| Solicitante | Fecha entrada TVDC | Fecha salida TVDC | |
|---|--------------------|-------------------|---------------|
| EROSKI/BERGARA | 03/03/2006 | 15/04/2006 | ALDEKOA |
| DIA-ZUMAIA | 16/03/2006 | 26/05/2006 | ALDEKOA |
| GELSA-Antonio Trueba-ERANDIO | 20/03/2006 | 08/06/2006 | ALDEKOA |
| EROSKI-La Ribera-BARAKALDO | 21/03/2006 | 26/05/2006 | ALDEKOA |
| SUPER BM-AGURAIN | 22/05/2006 | 09/06/2006 | ALDEKOA |
| SABECO-Ldo. Poza 57-BILBAO | 24/05/2006 | 08/06/2006 | ALDEKOA |
| EROSKI-ZALLA Ampliación | 24/05/2006 | 12/06/2006 | ALDEKOA |
| EROSKI SANTUTXU | 28/06/2006 | 21/07/2006 | ALDEKOA |
| M.DUTTI-LIBERTAD-DONOSTI | 31/07/2006 | 24/10/2006 | ALDEKOA |
| M.DUTTI-GUETARIA-DONOSTI | 31/07/2006 | 24/10/2006 | ALDEKOA |
| UVESCAYA, S.L. - BARAKALDO | 15/09/2006 | 25/09/2006 | ALDEKOA |
| EROSKI, S.COOP. - BALMASEDA | 15/09/2006 | 15/11/2006 | BALDINTZAZKOA |
| EROSKI, S.COOP. - BILBAO (INDAUTXU) | 15/09/2006 | 09/10/2006 | ALDEKOA |
| ERCORECA, S.A. - ETXEBARRI | 28/09/2006 | 24/10/2006 | ALDEKOA |
| EROSKI, S.COOP.Donosti-Buenavista | 14/12/2006 | 22/01/2007 | ALDEKOA |
| EROSKI, S.COOP.ORIO Sector 8 Munt | 14/12/2006 | 14/02/2007 | ALDEKOA |
| ALDI PINTO SUPERM. S.L. VITORIA-GASTEIZ | 07/02/2007 | 22/03/2007 | ALDEKOA |

Taula 6.2 Taula Superfizie Handien Txostenak, LDEA-ak eginak. 2006

* Gainerako informazioa eskatu zen.

6.4 3. HELBURUA. NORMATIBA BERRIAREN PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEA

Bere funtzioen artean, Auzitegiak badu lehiaren materiako erregulazio berriei buruzko txostenak egitea. Eginkizun honek esanahi berezia izan du 2006ko urtean, zeren urte horretan errebisio normatiborako bi prozesu abiatu baitira. Horri zaionez, bi txosten diktatu izan dira.

5.4.1 Normatiba estatala

2006ko martxoko lehiaren defentsarako lege aurreproiektuari ohartzapenak. Delako txosten horretan LDEA-k (200ko martxoaren 31n igorria) zenbait gomendio eta ekarpen jakitera eman zituen aurreproiektua arlo jakin batzuetan hobetzeko, nagusiki ere hauek: eskumenen distribuzio eta atribuzio sistemaren argiztapena, normatiba komunitarioaren premisa instituzionalen adopzioa –analogiaz- materian eskumena duten agintarien koordinaziorako, eta organo instruktorearen eta ebazpeneko organoaren arteko harremanak.

5.4.2 Normatiba autonomikoa

Ohartzapenak superfizie handien kokapen, modifikazio eta zabalkundearen gaineko dekretuaren (2006ko ekainaren 23a) modifikazio dekretuaren proiektuari. Delako txostenean (2006ko ekainaren 23an igorria) LDEA-k planteaturiko erreformari mesedegarri deritza, interes orokorraren aldeko baita, populazioari eraztu

egiten zaiolako establezimendu komertzialetarako sartu-irtena, eta berori ingurumenari errespetu izanik. Aldi berean, erreformak merkatuen lehiakortasun maila hobetu egiten du. Guztiarekin ere, sakoneko alderdi funtsezkoen gainean ohar batzuk egin zituen: lizentzien emateko sistema, gehienezko superfiziearen koefizienteak eta merkatu nabarmenenak aztertzeko irizpide espezifikoak.



6.5 4. HELBURUA. ERKUNDEEN KONTSULTEI ERANTZUTEA

LDEA-k bere obligazioen artean du beste erakunde bantzuetatik datozkion kontsulta edo galderei erantzutea. Urtean LDEA-ra ondokoek jo izan dute:

| Eusko Legebiltzarra: Euskal Sozialistak Legebiltzar Taldea deitu talde parlamentarioaren aldetik LDEA-ren aurkezpena eskatu zen, azal zezan honek urterako zuen egitasmoa eta aurkez bere konposizioa. Auzitegia, beraz, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen aurrera agertu zen 2006ko maiatzaren 24an.

| Industria, Komertzio eta Turismo Saila: sail honen eskariz, LDEA-k superfizie handien gaineko dekretu berraren proiektuaz txosten normatibo bat igorri zuen.

| Industria, Komertzio eta Turismo Saila: Sailaren Zuzendaritzaren eskariz, LDEA-k merkatu txosten bat igorri zuen, marka komertzialen arteko gatazkari buruzkoa.

6.6 5. HELBURUA. AUZITEGIA GIZARTEARI EZAGUTARAZI

Funtziotan sartu zenaz geroztik, Auzitegiak badaki ezen ez soilik bere egintzen komunikazioa eta hedapena garrantzizkoa dela, baizik berari dagokion lanarena ere. Hori giltzarri izango da datozen urteetan arrakasta izan dezan. Beraz, helburu aleatorioa ez ezik nagusia da. Ikuspegi honetatik, urtean zehar estrategia komunikatibo bat definitzen aritu izan dira, komunikatzeko moduari oinarriak jarri dizkiona.

Helburu honen barruan, LDEA-k urtean zenbait egintza izan ditu. Batetik, bere web orria diseinatzeko tramitetan hazia da, 2007ko urtean prest izango dena. Bestetik, denbora honetan zehar izandako egintzak prentsan agertu izan dira, eta horrek poz eta motibo bat ekarri digu hedabideetan gure berri izan dezaten.

2006ko urriaren 19an egin izan zen Santiago de Compostelan lan-bilera bat Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegien artean, zeinetara heldu zen Estatukoa, Galiziakoa, Madrileko Komunitatekoa, Catalunyakoa, Aragoikoa, Extremadurakoa, Gaztela-Leoikoa eta Euskadikoa. Akordioaren artean, besteak beste, nabarmendu nahi dugu Auzitegi guztiek, kolaborazio instituzionalaren eremuan, onartu zutela ororen artean antolatzea Donostian UPV-EHU-ren Udako Ikastaro bat izenez "Lehiaren defentsaren erreforma: gakoak eta geroari buruzko erronkak" lehenengo edizio honetan

LDEA-ren zuzendaritzapean, izango dena 2007ko uztailearen 2tik 4ra bitartean.

Akordioaren barruan dago, halaber, urtero ikastaro bat antolatzeko asmoa lehiaren ekonomia eta eskubidea eguneratzeko tresna gisa, bai eta horren sustapena Auzitegien aldetik.

Azkenik, zenbait kontaktu egin izan da LDEA-ren egintzak jakitera emateko eta erakunde publiko eta pribatuekin batera aritzeko moduak bilatzeko. Kontaktuotan, hauexek, besteak beste:

| LDEA-a aurkeztu Eusko Legebiltzarraren Lehendakariari (2006ko apirila).

| LDEA-a aurkeztu kontsumitzaileen erakundeen aurrean (2006ko ekaina).

| LDEA-a aurkeztu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publikoen Sailari (2006ko urria).

| Deustuko Unibertsitate Komertzialeko Andre Dekanoarekin bildu (2006ko urria).

| LDEA-a aurkeztu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko Zuzendaritza Orokorriari (2006ko urria).

| LDEA-a aurkeztu Euskal Enpresarioen Konfederaziorari (Confebask) (2006ko azaroa).



| LDEA-a Enpresari Arabarren Sindikatoko lehendakariarekin (EAS) bildu (2006ko azaroa).

| LDEA-a aurkeztu Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Seguritateko Sailari (2006ko azaroa).

6.7.6 HELBURUA. LEHIAREN DEFENTSARAKO FORO INTERNAZIONALETAN PARTE HARTZEA

Mundu mailan lehiaren defentsak bilakabide handia izan du Estatu Batuetan Legea (Sherman Act deritza) 1.890ko uztailearen 2an promulgatu zenaz geroztik. Harrezkero estatu askok erabaki izan du neurriak hartu behar direla lehia murriztuko duten akordio eta elkar-hartzerik eta dominio posiziotik abusurik izan ez dadin.

Kooperazio internazionala lehiaren defentsarako gaietan

Internacional Competition Network (I.C.N.) deituak batzen ditu lehiaren babes molde hau duten herrialdeetako Lehiaren Defentsarako Agintariak. Lehiaren eremu barruko arloetan lan-taldeen eginez jarduten du, eta urtero egiten den konferentzia batez ematen zaio azken ekitaldi bakoitzari. Horixe da mailarik gorena duen foroa lehiaren politikari dagokionez, eskubidearen eta ekonomiaren aldetik begiraturik.

Bada, horrez gain, beste foro internazional bat lehiaren materialen rol garrantzitsua duena, hots, Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea (K.G.E.E.), hogeita hamar estatu-kidez osatua, badirelarik ere estatu kide ez direnak. K.G.E.E.-ren barruan bada Eskumenen Banakuntza eta Lehiaren Komite bat, bi lan-taldetan diharduena: Ekonomia

eta Erregulazioa taldea, eta Lehiaren Eskubidearen Aplikazioa eta estatuekiko harreman Taldea.

Estatu espainiarrean, Estatu Batuen eraginez, 1963an Lehiaren Praktika murriztaileen Legea promulgatu zen. Europar Batasunean lehiaren defentsarako materia sartu zen EEE-ko Tratatuak 81 eta 82 artikuluetan, zeinetan lehia murrizteko akordioak eta dominio posiziotiko abusua debekatzeko baitira.

Egun, ehundik gora estatuk lehiaren defentsarako sistema martxan jarria dute, merkatuen funtzionamentu zuzena bermatzeko, horretarako oinarritzat hartuaz lehiaren babeseko printzipioaren aplikazio objektibua.

Europar Batasuneko eremu juridiko-politikoaren barruan (parte gara), estatuan aplikatuz dator lehiaren politika komunitarioa, berau Europako Batzordetik gidatua, berori baita politika hori diseinatu, koordinatu eta kudeatzen duen organo exekutiboa. Europar Batasuneko lehiaren politikak helburu ditu:

1. Estatu kideen merkatuen integrazioaren alde egitea, barne merkatu europar komunaren funtzionamentua bermatzeko.
2. Merkatu librearen sistemari eustea, zeinetan enpresak jardun dezaten lehia libreko baldintzetan.

Europar Batasuna harturik, urtero egiten da Lehiaren Egun Europearra, Europar Batasuneko Batzordeak eta une horretan presidentzia bere esku daukan

estatuak antolatua. Helburua izaten da Batasunean une horretan lehiaren egoera zertan den aztertzea, zer aurrerapen egin izan den ikustea eta lehiaren gaineko politika komunitarioaren helburuak lortzeko erraminta berrien aplikatzea. Europa mailako foro honen beste helburu bat da Batasuneko estatuetan lehiaren kultura sustatzea.

Beraz, honaino azaldutakogatik, LDEA-k ezinago garrantzizko deritza foro horietan eta hedaturiko sareetan parte izateari, gai horretan eginez datozen berrikuntza eta aurrerapenen berri izateko. Alderdi horretatik ikusita, egin izan diren bilera nagusiak honakoak:

International Competition Network-eko 5. Urteroko Konferentzia (Cape Town, maiatza, 2006).

L.D.E.A. presente izan zen Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak gonbidaturiko autoritate gisa, azken hau Estatuaren ordezkartzan ari zelarik.

5. Urte-konferentzian (Cape Town), Auzitegiko kideek taldekako zenbait lan-saiotan hartu zuten parte, bateko eta besteko arloetan sortu berrikuntzak ezagutzeko: lehiaren politikaren inplementazioa, enpresen kontzentrazioa, telekomunikazio, lehia eta garapena, eta kondukta unilaterala.

Ugariak izan ziren herrialde askotako autoritateekin egin kontaktua: Frantzia, Portugal, Suitza, Mexiko, El Salvador, Txile.



Estatuko delegazioak, osaturik Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegi, Auzitegi Katalan eta Euskal Auzitegiak, Espainiak Cape Town-en duen Kotsul Orokorrekin batzarre bat egin izan zuen, Alfonso Muñoz-Seca Jaunarekin.

Lehiaren Egun Europearra (Viena, ekaina, 2006).

EUROPEAN COMPETITION DAY 2006
LEHIAREN EGUN EUROPARRA 2006

Europar Batasuneko mailan urtero egin bilera honek bitariko garrantzia dauka: batetik, Europan lehiaren eremuan egin ohi den eztabaidagune eta erreferentzia nagusi delako, lehiaren agintari guztien parte hartzearekin; eta bestetik, egun hori giltzarri delako, lehiaren defentsarako politika sustatzeko eta hedatzeko, ekonomiaren eta lehiaren eskubi-dearen arloan agintari, jakitun eta profesional direnen artean.

Biltzarre horretako egitasmoari “Lehiaren Legea, egungo inguruarekin loturak eta joera berriak” deitu zitzaion, eta antolatu zuten 2006ko urtea Europar Batasuna buruzagitu zuten bi estatuek: Austria eta Finlandia. Jardunaldiko parte nabarmenenak honako hiru arazo giltzarriz aritu izan ziren:

Bete egin dira egun E.B.nean indarrean diren kontzentrazio akordioetan jasorik datozen konpromisoak.

Eskumenen politikan harreman eta joerak.

Europak galde dago lehiaren politikaren izaera lehiakornaz.

Lehiari buruzko IV Foro Latinoamerikanoa (El Salvador, uztaila 2006).

KGEE-aren barruan bi foro internazional dira lehiaren

autariateen artean harreman eta lan komuna sustatzeko ardura dutenak: Lehiari buruzko Foro Globala eta Lehiari buruzko Foro Latinoamerikanoa.

LDEA-ak esku hartu zuen Lehiari buruzko IV Foro Latinoamerikanoan, 2006ko uztailean. Gertarikorik agenda zentratu zen: lehiaren defentsarako autariateen eta erregulatzaile sozialen arteko harremanetan; lehiaren defentsa sektore finantziarioan; erremesa merkatuan lehia; eta Argentinan lehiaren defentsa politikaren gaineko azterketa.

LDEA-aren presentzia izaera instituzionalekoa izan zen, ekitaldi guztietan parte hartuaz era ofizialez Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren alboan, abotsez baina botorik gabe.

Conseil de la Concurrence deituarekin bilera (París, iraila 2006).

Apirilaren 27an bisita egin zitzaion Conseil de la Concurrence deituari, Frantses Errepublikako Lehiaren Defentsarako Autoritatea, 1986an sortu organismo administratiboa.

Lehenik Kontseiluak tratatu arazo baten lekuko izan ziren Auzitegiko kideak eta, ondoan, lehendakari-ondoko Philippe Nasse Jaunarekin bildu, zeinek azaldu zituen Lehiaren Kontseiluaren funtzionamentua, zehapenen maila, klementzia prozedimentua, zehapenak erabakitzeko irizpideak...

Intereseko sektoretzat aztertu izan ziren medikamentuen banakuntza, energia gutxika saltzea eta funerariak.

Bazkalorduan Kontseiluko Lehendakariarekin, Lasserre Jauna, zenbait alderdi aztertu izan zen: Frantzia lehiaren autoritatearen funtzionamentua, Europako Batzordetik eragindako lehiaren deszentralizazio politika; eta Espainiako Estatuako deszentralizazioa.

Ondoren, instruktore orokor adjuntoarekin, Irene Luc, eta Elizier García-Rosado eta M. Ferrero instruktoreekin lan-ekitaldi bat izan zen antolamentua eta prozedimentua ezagutzeko Lehiaren Kontseiluaren aurrean.

Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundearekin (O.C.D.E) bilera (Paris, iraila 2006).

Irailaren 28an bisita bat egin izan zen Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundera (O.C.D.E.), zein osatua baitago hogeita hamar estatu-kidez eta zeinetan estatu kide ez direnek ere parte hartzen duten. LDEA-a Bernard Phillips jaunarekin (Lehiaren Dibisioko buru) eta Frederic Jenny jaunarekin (Lehiaren Batzordeko buru).

Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakunderako arduradunek egundo gertatu gabetzat irizten diote Lehiaren autoritate ez-estatal bat berekin iza-



teri eta organismoaren egoitza zentrala bisitatzeari. Orobat diote ezen L.D.E.A. geroan lan-taldeetan parte hartzera gonbidatua izango dela (intereseko irizten zaienetara) eta deiak Estatuak O.C.D.E-ren aurrean duen ordezkartzaren bitartez egingo direla. Konkretuan gonbidatua da lehiari buruzko legeriaren inpaktoa baloratzeko teknikez eratu lan-talde baten parte izateko.

O.C.D.E.-k uste du L.D.E.A.-k geroan buruzagi lezakeela lan-talde bat arduratzat lukeena baloratzea lehiaren defentsarako sistema deszentralizatu baten aplikazioaren funtzionamentua, emaitzak eta horrek ekonomian duen eragina.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (L.D.E.A.) eta Frantsen Errepublikako Lehiaren Defentsarako Autoritatearekin eta Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundearekin (O.C.D.E.) izandako bilera ofizial hauen xedea da Eusko Legebiltzarreko Biltzarrari aurkezturiko lan-planean bilduak datozen alderdietarik bat garatzea baino, hau da, Europar Batasuneko Lehiaren Autoritate Nazionalekin harremanetan sartu eta sendotzea, berdin internazionalki esperientzi handia dutenekin.

Bilera hauetatik esperientzia ugari heldu zaigu, ez soilik lehia librearen babeserako normatiba komunitario eta internazionalaz, baizik beste lurralde batzuetan diharduten erakundeen ekiteko moduz ere bai.

Bereziki ere garrantzia handienekoa izango da harremanak izatea Europar Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Orokorrarekin, horrek funtsezko lekua baitu merkatuetarako sartze librearen babesean, agente ekonomikoen aldetik denaz.

6.8 7. HELBURUA. LEHIAREN GAIETAN EZAGUTZA SORTU ETA HEDATU

Lehiaren gaiari buruzko ponentziak

LDEA-k helburu nagusitzat dauka lehiaren araei errespetua izatearen kultura hedatzea, hori baita modu bat politika ekonomikoaren xede sozialetan kontribuitzeko. Beraz, hastapenetik beretik horren ezagutza hedatzea hartu du bere egitekotzat; hedatu eta ezagutarazi, eztabaida, ikasketa eta hedapen foroetan, agente sozial eta ekonomikoen bitartez. LDEA-k jardunaldi zenbaitetan parte hartu du, besteak beste:

| Bilboko Merkataritza Ganbararen Jardunaldia, Bilbao Dendak Elkartearekin Bolkestein Direktiba proposamenari buruz (Bilbao, martxo 2006).

| Lehiaren Defentsarako Urteroko Jardunaldia, (Madril, maiatza 2006).

| Menéndez Pelayo Unibertsitate Internazionalako Jardunaldiak, Lehiaren Defentsarako Auzitegi Gailegoak antolatua (Pontevedra, uztaila 2006).

| Politika publikoen ebaluazioaren gaineko Jardunaldia,

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Zuzendaritzak antolatuta (Donostia, uztaila 2006).

| Lehiaren ekonomia eta defentsari buruzko Jardunaldia, Lehiaren Defentsarako Auzitegi Gailegoak antolatuturik (Santiago de Compostela, urria 2006).

| “Lehiaren Ekonomia eta Eskubidea. Azken joerak eta erreforma legalak Europan” deituari buruzko jardunaldia, LDEA-k eta LDEZ-k elkarren artean antolatuturik, hartan aurkeztu zelarik Ekonomiaz aldizkariaren 61 alea (Bilbao, azaroa 2006).

| Lehiaren IV Foro Latinoamerikanoa (El Salvador, uztaila 2006).

| Fundación Rafael del Pino deituaren Lehiaren Eskubide eta Ekonomiaz III Mintegia: Lehiaren Eskubidea eta Epaileak (Madril, azaroa 2006).

| Lehiaren Defentsarako Escuela Iberoamericanaren V Edizioa (Madril, azaroa 2006).

³ Monografikoa, gai honetan dagoen bibliografiari ekarpena handia, bertan jaramon egiten zaio berariaz errealitate autonomikoaren perspektibari, ikuspuntu estatal eta europarrak aldera utzi gabe.



l “Laguntza publikoen eraentza komunitarioa eta bere eragina Galizian lehiaren ikuspuntutik”, Lehiaren Defentsarako Auzitegi Gailegoak antolaturik (Lugo, abendua 2006).

l “Lehiaren defentsarako espainiar sistemaren erreforma kontsumitzaileen babes publiko eta pribatuaren eredu” (Sevilla, abendua 2006).

Jardunaldia lehiaren ekonomia eta zuzenbidez

Deustuko Unibertsitate Komertzialean (Bilbao) azaroaren 27an jardunaldi bat izan zen lehiaren politikari buruz hiru ikuspegi diferentetatik: Europar Batasuna, Estatu eta eremu autonomikoa. Mintzatzaileak, Robert Saint Esteben, Pariseko Unibertsitatean lehiaren eskubideko irakasle; Luis Berenguer, Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Buru; eta Lluís Franco, Lehiaren Defentsarako Auzitegi Katalanaren Buru.

Jardunaldian Ekonomiaz aldizkariaren 61 alea ere aurkeztu zen: “Economía y derecho de la competencia. Últimas tendencias y reformas legales en Europa”. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazioko Zuzendaritzak argitara emana eta zuzendua Iñaki Beristain Jaunak. Ale berezi hau koordinatu du Luis Crucelegui Jaunak, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko Buruak (LDEA).

Iñaki Beristain Jaunaren hitzetan, zein aldi berean

baita Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren Buru, merkatuko ekonomia sozialeko sisteman gaudenagatik ere, Administrazioak beilatu eta begiratu egin behar du merkatua, honek bere joku arauak errespetatuz eta permititu enpresek erabaki dezaten libreki non frabrikatu eta saldu beren produktu eta zerbitzuak, distorsiorik gabe.

Lehiaren autoritateek enpresen arteko lehia libre begiratu egin behar dute, eta debekatu eta zehatu merkatuaren funtzionamentu naturalaren kontrako praktikak, hala nola, prezioak edo merkatuaren banatzea, dominio posiziotiko abusuak -enpresei dagokienez-, kontzentrazioak eta oro har lehia murrizten duten konduktak.

Lehiaren Defentsa funtsezko zutabe da merkaturaren funtzionamentua malgutzeko politiketarako, eta politikok dira beraz osoki justifikatuak eraginkortasun asigmatibotik.

6.9 LEHIAREN DEFENTSARAKO AUTORITATE ESTATAL ETA AUTONOMIKOEKIKO HARREMANAK

Lehiaren defentsarako garapen normatibo eta instituzionalari egindako ekarpen gisa, LDEA-k zenbait bilerratan parte hartu izan du gainerako organismo estatal eta autonomikoekin, besteak beste, honakoetan:

Estatuko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuarekin elkartu (Madrid, martxo 2006).

Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiarekin elkartu (Bilbao, maiatza 2006).

Madrileko Komunitateko Lehiaren Defentsarako Auzitegiarekin elkartu (Madril, maiatza 2006).

Lehiaren Defentsarako Auzitegi Gailegoarekin elkartu (Santiago de Compostela, maiatza 2006).

Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiarekin elkartu (Bilbao, maiatza 2006).



LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIEKIKO BILKURATIK ATERATAKO ONDORENAK

- Lehiaren Defentsarako Auzitegiak eta Lehiaren Defentsarako Auzitegi Autonomikoen (batera harturik "Lehiaren Defentsarako Auzitegiak") Lehiaren Defentsarako Auzitegien izaera arrunteko urteroko elkartze bat egingo dute, non eztabaidatuko diren arazo instituzionalak eta lehiaren defentsaren politikari zaizkionak. Bestalde, berek hala irizten diotenean bilera ezohikoak egingo dituzte.

- Lehiaren Defentsarako Auzitegiek aldiro-aldiro Lan-Bilerak izango dituzte, beren arteko koordinazioa errazteko, irizpideen berri elkarri jakinarazteko eta lehiaren defentsarako normatibaren aplikazio koherentea erdiesteko.

- Abal duelarik, eta konfidentzialitate arauari jarraituz, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak erraztu egingo du Lehiaren Defentsarako Auzitegi Autonomikoen sarrera Lehiaren Sare Europarraren lan-taldeetatik heldu den dokumentaziora.

- Abal duelarik, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak erraztu egingo du Lehiaren Defentsarako Auzitegi Autonomikoen parte hartzea lehiaren defentsarako gaia duten foro internazionaletan.

- Lehiaren Defentsarako Auzitegiek aztertu egingo dute ea litekeena den EB Tratatuaren 81 eta 82 artikuluen aplikazioa Lehiaren Defentsarako Auzitegi Autonomikoen aldetik.

- Lehiaren Defentsarako Auzitegiek une egokia irizten diote 16/1989 Legearen (Lehiaren Defentsa) erreformari lotzeko, bai eta hori sustatzen duten printzipioei.

- Beren aldetik, Lehiaren Defentsarako Auzitegi Autonomikoen uste dute Lehiaren Defentsarako Lege berriak egokiro arautu behar lituzkeela Lehiaren defentsarako Auzitegien arteko konexiogune konpetentzialak eta koordinazioa, egun 1/2002 Legearen barnean.

Bilbao, maiatzaren 25a, 2006a

Estatuko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuarekin elkartu (Madril, ekaina 2006).

Lehiaren Defentsarako Auzitegi Katalanarekin elkartu (Barcelona, ekaina 2006).

Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiekin elkartu (Santiago de Compostela, iraila 2006).

Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegien lan-biltzarra (Santiago de Compostela, urria 2006).

Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegien lan-biltzarra (urria 2006)

Santiago de Compostelak hartu zuen Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegien lan-biltzarra (Lehiaren Defentsarako Auzitegi estatuala, Galiziakoa, Madrilako Komunitatekoa, Catalunyakoa, Aragoikoa eta Euskalduna) ondoko arazoez aritzeko:

- Lehiaren defentsarako organo autonomiko berrien aurkezpena: Extremadura, Aragoi, Castilla-León.

- Lehiaren Defentsarako Lege Proiektuaren azterketa: elkarrekin jokatzeke proposamena.

- Liburuaren Legeazko txostena: azaroaren lehenengotan LDA-k estudioa igorriko du.

- Auzitegien aldiroko batzarreak.

- Kolaborazio instituzionala.

Lehiaren Defentsarako Kontseiluaren 5. biltzarra (Madril, abendua 2006).

LEHIAREN DEFENTSARAKO KONTSEILUA

Lehiaren Defentsarako Kontseilua (LDK) da Administrazio Zentralaren eta Erkide Autonomoen arteko kolaborazioko eta partizipazioko organoa. Bere hel-

buru da administrazioek lehiaren defentsarako normatibaren aplikazioan erabili duten irizpideaz informazioa eta gainerakorik elkarri jakitera ematea. Lehiaren Defentsarako Kontseilua (LDK) 1/2002 Lege otsailaren 21aren gainean eraikia da; delako lege hori Estatuaren eta Erkidego Autonomoen eskumenez ari da lehiaren defentsarako materian.

LDK-ren bosgarren biltzarrean Lehiaren Defentsarako aurotitate berritza aurkeztu izan ziren Gastele-Mantxakoa, Kanarietako, Valentziakoa eta Murtziakoa. Kide berriak aurkeztuta, autoritateek 2006ko urteari dagozkion beren eginkizunak aurkeztu zituzten, eta REC (Red de Cooperación de Órganos de Defensa de la Competencia) edo LDOK deituari buruzko lan-dokumentua aztertu zuten, bai eta eztabaidatu zen erreformen gaineko oharra, zerbitzu profesionalen arloan.



| 07 | L E H I A R E N D E F E N T S A R A K O A U Z I T E G I A R E N G I Z A - T A L D E A |

2006ko uztaiaz geroztik, LDEA-k funtzionario bat izan du bere eskura eginkizun administratibo eta auxiliarretarako. 2007an uste da bi tekniko funtzionario helduko direla:

| Dedikazio eskusiboko tekniko bat, Eskubidean lizentziatua, Administrazioan esperientzia handikoa.

| Ogasun Saileko tekniko bat, Auzitegiko Idazkari zereginetarako.

08

DATU
EKONOMIKOAK

2006ko urtean, LDEA-k 228.585,99 €-tako aurrekontua izan du, desglosatua ondoko kontzeptuetan:

| | |
|--------------------------|-------------------|
| Pertsonaleko gastuak | 168.349,18 |
| Funtzionamentuko gastuak | 60.236,81 |
| Asistentzia teknikoa | 11.982,80 |
| Harreman inatuzionalak | 37.824,41 |
| Bestelako lanak | 5.940,79 |
| Ekipo informatikoak | 4.488,81 |
| OROTARA | 228.585,99 |

Honi zaionaz bezainbatean, jakinarazi behar da LDEA-ren Kudeaketa Planak –2006an aurkeztua- aurreikusten zuela 732.000 €.-tako beharkizun presupuestarioa. 2007rako on litzateke 521.045 euroko aurrekon-

tua izatea, zeren funtzionamentuko zein pertsonaleko partidek bitantzera egingo baitute, Auzitegiak berak baliapideen eskarian diotenaren arabera.